

## KirolApp



### **BALIO PROPOSAMENA:**

“KirolApp” kirol aplikazio bat da. Aplikazio honek euskal kirolariak eta euskal kirol-taldeak berrmatzen eta sustatzen ditu. Gainera, kirola gustuko duten pertsonen onura desberdinak lortuko dituzte.

Euskal Herri osoan kirolaz hitz egiten dugun bakoitzean, ohiko kirolak etortzen zaizkigu burura: Futbola, saskibaloia, eskubaloia... baina zer gertatzen da beste kirolekin? Ba, aplikazio honek erantzuna ematen dio galdera horri.

Badira hainbat kirol, ikusle gutxi dituztenak, eta ondorioz, zailtasunak izaten dituztenak sarrerak saltzeko orduan, horrek, diru-sarrerak lortzeko zailtasunak sortzen dizkietelarik.

Gainera, kirol hauek gustuko dituzten pertsonen arazoak izaten dituzte aktibitate horien ekintzak non eta noiz izango diren jakiteko orduan, horrek ikusleen galera suposatzen dielarik. Beraz aplikazio honen bidez, erabiltzaileek bere bizi-gunetik hurbil dituzten eta gustuko dituzten kirolak non eta noiz izango diren jakiteko aukera ematen die, umeen zein gizon/emakumeen kirola izan.

Hori gutxi balitz, erabiltzaileak aplikaziora izenpetuko balira, hainbat abantaila izango lituzkete beste kirol aplikazio batzuekin konparatuz. Hasteko, kirol sarrerak merkeagoak izango lituzkete, hau da, sarreragatik ordaindutakoaren ehuneko bat

(%25) aurreztuko lukete (ehuneko hori joaten diren partiduen kopuruaren menpe egongo da) eta beraz, gero eta kirol ekitaldi gehiagotara joan, orduan eta diru gehiago lortuko lukete. Aurreztutako dirua, beste kirol bateko subskripzio batean edota maila altuago bateko sarrera bat erosteko aukera emango lukeelarik.

Gainera aplikazioak beste atal bat edukiko du. Kirol berdina eta zonalde geografiko berdinean bizi diren erabiltzaile izenpetuak biltzeko "chat" bat. Horrekin kirol berdina gustuko duten pertsonen artean talde bat sortuko litzateke, eta beraz geldialdiak egiteko aproposa izango litzateke gustuko duten kirol horren ekitaldi batera joateko, kirola eta harremanak sustatuz.

Aplikazio hau, doakoa izango da. Bestalde, kirol batera inkribatuz gero (subskripzioa, 9,99€/hilabetero edo 99,99€/urtero) lehen esandako abantaila izango dute, hau da, kirol batera izenpetua egonez gero, kirol horien sarrera merkagoak izango lirateke, dirua aurreztuz. Aplikazio hau, IOS eta Android, nahiz Windows-etzako egokia izango da eta beraz, eskuragarria da guztiz.

Hau guztiaz gain, aplikazio honen bitartez erabiltzaileak, gustuko duen kirol bat ospatuko denean notifikazio bat heltzen zaio eta beraz, denbora aurrezten diegu. Aplikazio hau ez izanda, interneten bilaketa mordoak egin behar dira eguneratuta egoteko, eta batzuetan ez dira agertzen.

Aplikazioak diseinu berritzailea eta erabilerreza izango da.

## DISEINUA:

	<b>2</b>
Kontua sortu: .....	
Pasahitza (8 karaktere gutxienez) .....	
	<b>BERTSIO LIBREA</b>

<p>Pasahitza errepikatu .....</p> <p>Kokalekua .....</p>	<p>edo</p> <p>IZENPETUA</p>
<p style="text-align: right;"><b>3</b></p> <p>Txartela zka. .....</p> <p>Iraungipen-data (urtea)/ (hilabetea)</p> <p>Babes kodea .....</p> <div style="display: flex; justify-content: space-between; align-items: center; margin-top: 20px;">      </div>	<p style="text-align: right;"><b>4</b></p> <p>Laguntza:</p> <p>Kontaktu telefonoa: 946800789</p> <p>E-maila <a href="mailto:info@kirolapp.com">info@kirolapp.com</a></p> <p>sare-sozialak</p> <div style="display: flex; justify-content: center; align-items: center; margin-bottom: 10px;">    </div> <p>@kirolapp @kirolapp @kirolapp</p>

- Kirolak hautatu**
- Atletismoa
- Esku pilota
- Boxeoa
- Xakea
- Txirrindularitza
- Igeriketa

Trainerak
Waterpoloa
....
Beste kirol bat

Kirol bat hautatzean.....

<b>TRAINERAK</b>
Kaiku
San Juan
Orio
Hondarribia
Astillero
Urdaibai
San Pedro
Santurtzi
Hernani
.... (beste batzuk)

Taldea aukeratzean....

<b>ORIO</b>
Gazteak, emakumezkoak
Gazteak, gizonezkoak
kadeteak, emakumezkoak
kadeteak, gizonezkoak

infantilak

1 maila

23 urte beherakoak

....

**1.SARRERA ORRIA:** (kontua sortzeko, eta zure herria hautatzeko erabiltzen da, horrela zure inguruan dauden kirolez abisatuko zaitu.

**2. BERTSIO LIBREA:** (dohainik, baina abantaila gabe) edo **IZENPETUA.**

Pantaila honetan zer nolako erabiltzailea izan nahi duzun aukeratzen duzu. (Hilero izenpetu edo izenpena kendu dezakezu)

**3. IZENPETZEA:** Izenpetzeko jarraitu beharreko pausuak.

**4. LAGUNTZA:** Izenpetzean zalantzarik izanez gero, kontaktatzeko erak ageri dira.

**5. KIROLA AUKERATZEA**

**6. TALDEA AUKERATZEA**

**7. MAILA AUKERATZEA**